

## KANPAINA EGITEN II SARE SOZIALAK

### Jarduera honekin, zera landuko dugu

Elikagaiak botatzearen aurrean erantzukizunez jokatzea.  
Kontsumitzaile arduratsuak izatea.  
Janaria alferrik ez botatzeko jarraibideak.  
Sare sozialetan informazio-kanpaina bat egitea.  
Garapen jasangarrirako 2., 12., 14. eta 15. helburuak.

### Iraupena

Beharren araberako iraupena izango du jarduera honek.

### Beharke dugun materiala

*Botatako elikagaien gaineko ikerketa eta Etxean botatzen duguna* jardueretatik ateratako informazioa.  
Eranskinean datozen lanerako orriak.  
Ikasgelan ikusteko bideoak:  
[Elikagaiak botatzeak uzten duen aztarna](#)  
[Elikagaiak botatzeak uzten duen aztarna 2](#), biak FAOrenak.  
[Hondakinak](#), WWF erakundeak babestua.

### Zikloak 2, 3

### Aurretiazko oharra

Aurrez ez baldin badituzue *Botatako elikagaien gaineko ikerketa eta Etxean botatzen duguna* jarduerak egin, proposatzen dizkizuegun bideoak ikustea komeni da.  
Kontuan izan ikasleek beharbada telefono mugikorrek erabili behar izango dituztela jardueraren 2. fasea egiteko. Kasu horretan, behar diren baimenak eskatu beharke dituzte.

### Jarduera hau oso aproposa da klipmetrajeak egiteko eta gero zabalpena emateko.

### Garapena

#### 1. fasea

Bideoak ez badituzue aurrez ikusi, proiektu itzazue orain. Behar den guztietan gelditu eta sortzen diren zalantzak argitu, edukia denek ondo uler dezaten.

Ikasleak taldeka jarri eta jarduerari buruzko azalpentxo bat eman:  
«*Ikusi duzuen bezala, elikagai asko botatzen dira gure inguruan. Gu guztiok kontsumitzaileak garenez, badaukagu horretan erantzukizunik. Munduan gosea eragiten duen kate horretan gu ere bagaude. Arduraz jokatu behar dugu. Zerbait egin beharke genuke, egoera aldatzea gure esku dagoelako. Hortaz, talde bakoitzean ekintza zehatz batzuk pentsatuko dituzue, gure inguruan ez botatzeko elikagai gehiago, eta eman beharreko pauso nagusiak biltzen dituen dekalogo bat egingo duzue».*

Lanerako orriak banatu, eta talde bakoitzak bere dekalogo egin dezala. Talde guztiak amaitu dutenean, talde bakoitzeko pertsona batek beren dekalogo azalduko du. Edukiaren inguruan hausnarketa egin, ahalik eta egokiena eta praktikoena izan dadin.

## 2. fasea

Orain, dekalogoak sare sozialetan zabaltzeko kanpaina bat egingo dugu, haietan jasotako mezua ahalik eta jende gehienarengana irits dadin.

- Horretarako, talde bakoitzak egokien iruditzen zaion moduan jaso beharko du mezua (irudi digitaletan, bideoan, audioan...), sormena landuz.
- Elikagaiak alferrik botatzearen inguruko hausnarketaren bat eta landutako dekalogoko punturen bat jaso beharko ditu mezuak. Ohar eta mezu laburrak planteatu beharko dituzte taldeek, zabaltzen errazak, gizartea informatzeko eta sentsibilizatzeko.
- Halaber, erabaki beharko dute zer sare erabiliko dituzten (Whatsapp, Snapchat, Instagram...), zeintzuk izango diren eraginkorrenak, zer formatu izango den egokiena, etab.

Garrantzitsua da kanpaina bukatutakoan ebaluazioa egitea eta izan duen oihartzuna baloratzea: zer-nolako erantzuna izan duen, zenbat jarraitzaile izan dituen, zein iruzkin egin zaizkion, zenbat *like* jaso dituen, zenbatek partekatu zituzten argitalpenak, interakzioak, eta abar.